

## ZIBERGELA



# OpenID, erabiltzaile bakarra gune guztietarako



Sistemak ahalbidetzen du webgune guztietarako balio duen erregistroa sortzea

**IBON AIZPURUA UGARTE**  
Eleka ingeniari-tza linguistikoa

Sarean nabigatzean, zenbat webgune topatzen dira erregistratzea eskatzen dutenak? Zenbat erabiltzaile izen eta pasahitz kudeatu behar izaten dira? Eta webgune batean sartu eta pasahitza aldatu gabe denbora asko pasatu dela abisatzaren dutenean, aldi berean berri bat sartzeko eskatuz, zein pasahitz sartu?

Interneten dabilen edonori sarri gertatzen zaizkion egoerak dira azaldutako horiek: webgune bakoitzean erabili ahal izateko erregistratu beharra. Ez al litzake errazagoa behin egin erregistro bat eta webgune guztietarako balio izatea? Bada horixe da OpenID identifikazio sistemak proposatzen due-

na. Horretarako sistema deszentralizatu eta estandar ireki batez baliatzen da.

Behin eta berriz erregistratu behar diren arazoa konpontzeko egin dira saiakera batzuk, ezagunena Microsoftek egin zuen Passport zerbitzuarekin. Baina sistema horrek ez zuen arrakasta berezirik izan, eta gaur egun bere zerbitzuetan soilik erabiltzen da. Izan ere, arazo nagusi bat du sistema horrek: informazio guztia era zentralizatu batean gordetzen da, Microsoften zerbitzarietan, eta hori ez zaio inori gustatzen.

## Sorrera

OpenID ekimena duela pare bat urte hasi ziren garatzen. Teknologia berrien inguruko ekimen asko bezala, hori ere AEBetan sortu zen. 2007ko ekainean OpenID Foundation fundazioa sortu zen, eta gero European bere eskumendekoa sortu zen. Fundazioaren ardura da proiektuaren antolaketa eta garapena, baita horren jabetza intelektuala kudeatzea ere.

## Funtzionamendua

Ezaugarriak nagusiarena identifikazio sistema banatua izatea da. Identifikazioaren inguruko informazioa ez da zerbitzari edo erakunde baten esku geratzen, edo-

nork jar dezake OpenID zerbitzari bat identifikazio zerbitzua eskaintzeko. Horrelako zerbitzari bat jarritzen dutenak nortasun hornitzaile moduan ezagutzen dira.

OpenID sisteman, erabiltzaile izena URL edo web helbide bat da. Hori lortzeko nortasun hornitzaile batean erregistratu behar da; bertan erregistratzerakoan, erabiltzaile izena eta pasahitza eskatu dira. Hornitzaile horietako ezagunenetakoa bat MyOpenID izenekoa da, bertan erregistratu ondoren <http://erabiltzaile-izena.myopenid.com> moduko nortasun bat lortzen da.

Nortasuna lortuta (OpenID identifikatzailea), OpenID erabiltzeko prestatuta dagoen webgune batera joatean, nortasun hori sartu behar da. Nortasuna sartu ondoren, OpenID erregistroa egin den gunera berbideratzen da, eta erabiltzaile izena eta pasahitza sartzeko eskatzen da. Horrela amaitzen da identifikazio prozesua. Eta horrela izango litzateke zerbitzua onartzen duten webgune guztietan: erregistro bakar batekin gune guztietarako atzipena.

## Zerbitzua eskaintzen dutenak

2007an hasi zen mugitzen OpenID bidezko identifikazioen eskaintza,

eta 2008a bere urtea izan daiteke. Orain arte blog plataforma batzuk eskaini izan dituzte: Wordpress-erako eta Movable Type plataformetarako plugina, LiveJournal, Vox, eta abar. Baina azkenaldian bestelako albisteak ari dira iristen, Technorati, Googlerena den Blogger eta Yahoo ere hasi baitira OpenID zerbitzua eskaintzen. Hala ere Yahook emandako pausoa haratago doa, izan ere hornitzaile gisa ariko baita.

## Ondorioa

OpenID irekia eta deszentralizatua da, azken hori abantaila handia da; izan ere, ez baitago hornitzaile bakar batekiko dependentziarik. Hornitzaile edozein izan daitekeenez, konfiantza falta ere sor dezake erabiltzaile batzuegan. Hala ere, kontuan hartu behar da sistema ez dagoela banka elektronikoa bezalako zerbitzu kritikoetan erabiltzeko pentsatua. Helburua, gaur egun egiten den bezala, webgunetan etengabe erregistratu beharra sahistea da.

Oraindik gune askok eskaintzen ez badute ere, gero eta gehiago dira. Eta, gainera, Interneteko enpresa handiak ere sistema horretara hurbiltzen ari dira. Yahoo moduko webgune bat, milioika erabiltzaile dituen, OpenID hornitzaile izatea oso garrantzitsua da.

OpenID: [www.openid.net](http://www.openid.net)  
MyOpenID: [www.myopenid.com](http://www.myopenid.com)  
OpenID onartzen duten webguneen zerrenda: [openiddirectory.com](http://openiddirectory.com)

**KroonOS**  
CROSS-PLATFORM

## Trukatu zure denbora

Hori da KroonOS.com sare sozial berriaren helburua, denboraren banku gisa definitzen dute beraien zerbitzua. Funtzionamendua erraza da. Lehenik erregistratu egin behar da, norbere orduen kontu bat izateko. Gero, erabiltzaile bakoitzak dakienaren inguruan denbora jakin bat eskaintzen du: musika gomendioak emateko ordubete, esaterako. Beste lagun bati zerbitzua gomendatuz gero, lehenengo ordua ere lor daiteke. Behin norbere kontuan orduak izatean, zerbitzuak lor daitezke. Horrela, zerbitzu bat eskaintzen den bakoitzean orduen saldoa gehitu egingo da, eta jasotzen denean gutxitu.

Arrakasta gehien duten trukeak hizkuntza eskolak (ingeles gehienbat) eta informatikaren inguruko laguntzak dira. Gaien araberako sareak edo taldeak sor daitezke, eta erabiltzaileei konfiantza emateko mekanismoak ere baditu. Oso gune interesgarria da, trukearen ohitura sustatzeko.

**indymixli**

## Indywiki, Wikipedia era bisualean arakatzen

Hasiera batean Wikipediari ekarpen berezirik ez diola egiten pentsa daiteke, baina tresna oso baliagarria da Wikipedia sarri erabiltzen dutenentzat. Indywiki tresnak aukera ematen du Wikipediako edukia beste era batera arakatzeko, era bisualago batean. Bilaketak Wikipediako zein gunetan egin nahi diren aukera daiteke, defektuz ingelesezkoa egiten dituen arren, euskarazko bertsioan ere egin ditzake.

Edukia aurkezteko modua oso sinplea da, pantailaren goiko aldean aurkitutako artikuluko irudiak edo erlazioatutakoak azaltzen ditu. Behealde, berriz, hiru zutabetan banatzen da: erdikoan edukia bistartzen da, ezkerrekoan artikuluen edukia indizea ageri da eta eskuineko aldean bertatik egiten diren estekak. Windows, Linux eta MacOSX plataformatan dabil. Eduki bila Wikipedian denbora asko pasatzen dutenak probatzeko tresna da dudarik gabe.

[indymixli.sourceforge.net](http://indymixli.sourceforge.net)